

### Diru-bilketa ikasturtea hasteko

## **EROSKI-K ETA SAVE THE CHILDREN ERAKUNDEAK BAT EGIN DUTE HAURREN POBREZIARI AURRE EGITEKO ESPAINIAN**

- EROSKI *Save the Children* erakundeari emango dizkio elkartasun-poltsak saltzeak abuztuan eta irailean dakartzan irabaziak
- Horrez gain, kooperatiba eskolako materiala biltzeko kanpaina egiten ari da EAeko, Nafarroako, Kantabriako, Errioxako eta Burgosko hipermerkatuetan

**Elorrio, 2016ko abuztuaren 4a.-** [EROSKI](#)k elkartasun-kanpaina bat abiarazi du bere supermerkatuen eta hipermerkatuen sarean, dirua biltzeko [Save the Children](#) erakundearentzat. Hala, EROSKI eta *Save the Children*ek bat egin dute haurren pobrezia aurre egiteko Espainian; zehazki, helburua da bazterketa jasateko arriskuan diren haurrek eskolako materiala izatea hurrengo ikasturtea hasten denean. Kanpaina abuztuan eta irailean egingo da.

*"Kontsumo-kooperatiba bat gara, eta beraz, laguntzea gure DNAn txertatuta dago, gizartea orain bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra izan dadin. Kanpaina honen bitartez, Save the Childrenen baliabideak sendotzen lagundu nahi dugu, baita eskolara joateko adina duten adingabeen arteko heziketa-berdintasuna ziurtatu ere",* aipatu du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

*"EROSKIren laguntza eta tankera horretakoak ezinbestekoak dira haur ahulenekin lan egiteko. Laguntza horren bidez, Espainian bazterketa jasateko arriskuan diren haurren bizitza hobetuko da, eta denek izango dute haien ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko aukera",* erantsi du *Save the Children*eko zuzendari nagusiak, Andres Condek.

### **Diru-bilketa elkartasun-poltsaren bitartez**

Kanpaina honetan, EROSKI *Save the Children* erakundeari emango dizkio elkartasun-poltsak saltzeak abuztuan eta irailean dakartzan irabaziak. Elkartasun-poltsa kooperatibaren supermerkatuetan eta hipermerkatuetan saltzen da, kutxetan.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Era berean, eskolako materiala biltzeko kanpaina egiten ari dira EAEko, Nafarroako, Kantabriako, Errioxako eta Burgosko ia hogei EROSKI hipermerkatutan. Horren baitan, kontsumitzaileek koadernoak, blokak, margoak, errotuladoreak eta idazteko materiala erosteko aukera dute, eta ondoren, *Save the Children* erakundeak haurren artean banatuko ditu, haurren pobrezia aurre egiteko programaren bitartez.

Krisi ekonomikoak eta gizarte-laguntzetan izandako murrizketek haurrei eragin diete gehien. Programa horren bidez, *Save the Children*ek heziketaren alde dihardu, heziketa baita pobrezia transmititzeko zirkulua hausteko tresnarik eraginkorrena. *Save the Children* erakundeak heziketan laguntzen die estutasun larrian dauden haurrei, eta aisiako jarduerak antolatzen ditu, haur horiek eta haien senideek gainerakoen aukera berak izan ditzaten. Guztira, pobrezia-egoeran zeuden 8.027 haurrei eta 2.603 helduri lagundu zien 2015ean.

### **EROSKIri buruz**

EROSKI hasiera-hasieratik antolatu izan ditu gizarte-ekintzako ekimen ugari, eta horietan, batik bat, bizi-ohitura osasungarriak, kontsumitzaileen prestakuntza, ingurumena babestea eta elkartasuna landu dira. Kanpaina honetan, biltzen denaz gainera, EROSKI ekarpen gehigarria egingo du.

### ***Save the Children*ri buruz**

*Save the Children*ek mundu osoko haurren eskubideak defendatzen dihardu, eta erakunde independente nagusia da arlo horretan. Izan ere, 120 herrialdetan baino gehiagotan ari da lanean: kideek bizitzak salbatzen dituzte, haurrak babesten dituzte, eta haien eskubideak defendatzen dituzte Nazio Batuen Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena oinarri hartuta.

Espanian, 20 urte baino gehiago daramatza haur ahulenei laguntzeko programak antolatzen, eta bereziki, pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden haurrekin aritzen da lanean. Espanian egiten dituzten programen bidez, arreta integrala bideratzen dute haurrentzat eta haien senideentzat, egoera ekonomiko edo gizarte-bazterketako egoera ez dadin muga izan hurrek beren eskubideak bete-betean gauzatzeko eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)